# Manifestación nacional: Txikito 31 días en huelga de hambre y comunicación

AMNISTIAREN ALDEKO ETA ERREPRESIOAREN AURKAKO MUGIMENDUA. :: 10/10/2020

Hoy 10 de octubre Txikito cumplirá 31 días en huelga de hambre y comunicación a favor de la independencia y el Socialismo.

**[Euskara]**

**Manifestazio nazionala - Txikitok 31 egun gose eta komunikazio greba mugagabean Independentzia eta Sozialismoaren alde (Agiria)**

Gaur, urriak 10, Txikitok 31 egun beteko ditu gose eta komunikazio greba mugagabean Independentzia eta Sozialismoaren alde
Txikitoren borrokaren helburuak isilarazten saiatu diren arren, sare solidarioen bidez eta berak aldarrikatzen dituen helburuekin bat egiten dugun lanari esker ezin izan dituzte bere helburuok lur azpian enterratu.

Honen harira, galdera xumea baina garrantzitsua egiten diogu geure buruari: Zergatik izan behar da erokeria bat Euskal Herria Batua, Euskalduna, Independentea eta Sozialista nahi izatea guretzat eta gure ondorengoentzat? Ezinezkoa delako? Ezinezkoa, zergatik? Borrokatu nahi ez dugulako? Kontuz azken horrekin zeren eta hemendik denbora laburrera sozialdemokraziak eta burgesiaren frakzio ezberdinek ez dituzte helburu horiek erokeria gisa kalifikatuko. Zeharo alderantziz gertatuko da zoritxarrez. Okupatzen gaituzten sistemak defendatuko dituzte buru belarri. Eta, jadanik ez da aurrekontuen aferarik izango, bestelako aferak askoz potoloagoak baizik. Bestaldetik, inork esango luke, Euskal Estatu Sozialista batek (muga zehatz batzuetan kokaturik) munduko proletalgoari kalterik ekarri ahalko liokeela?

Guk ez dugu Euskal Iraultza Sozialista lurralde estanko batean entzerratuko eta “hor kon pon!”. Logika horri jarraituz, baldin eta halako jauzi iraultzaileak munduko lurralde guztietan aldi berean gertatzen ez badira, munduko iraultzaileen erantzukizuna da haien lurraldeko uneko koiunturan sortutako eta gertatutako faktore ezberdinez profitatu eta iraultza sozialista burutu. Aldi berean Estatu Sozialistaren subjektu iraultzailea euskal proletalgoa dela pentsatzen dugu eta euskal proletalgoak munduko proletalgoarekin batera lehenetsiko ditu bere harremanak tokian tokiko iraultza sozialista buruturik egon ala ez egon.

Horixe bera da indar iraultzaileek mundu osoan zehar zabaltzeko duten ardura. Honen harira, Argalaren hitz batzuk ekarriko ditugu, hau da, beste lurraldeetako proletalgoarekin identifikatzen gaituena klase berekoa izatea da eta ez nazio bereko langileak. Guri, hemen, Euskal Herrian bizi eta borrokatzea tokatu zaigu. Bistan da Txikitoren helburuekin bat egiten dugula. Hori izan behar da gure iparra, baita preso, deportatu eta iheslarientzako amnistia lortzeko ere.

Amnistia osoa!!! Gora Txikito, gora Euskal Herria Batua, Euskalduna, Independente eta Sozialista!

Amnistiaren Alde eta Errepresioaren Aurkako Mugimendua - 2020-10-10

Image
[twitter:twitturl:https://twitter.com/LaHaineInfo/status/1315004426176913412]
[twitter:twitturl:https://twitter.com/LaHaineInfo/status/1315005466200637440]
**[Castellano]**

**Manifestación nacional - Txikito 31 días en huelga de hambre y comunicación a favor de la independencia y el Socialismo (Comunicado)**

Hoy 10 de octubre Txikito cumplirá 31 días en huelga de hambre y comunicación a favor de la independencia y el Socialismo. Aunque han tratado de acallar los objetivos de la lucha de Txikito, no han podido enterrarlos bajo tierra gracias a las redes solidarias y a la labor de quienes compartimos los objetivos que él proclama. Al hilo de lo cual, nos hacemos una sencilla pero importante pregunta: ¿por qué resulta una locura anhelar una Euskal Herria Unida, Euskaldun, Independiente y Socialista para nosotros y para nuestros descendientes? ¿Acaso es imposible? ¿Por qué no es posible? ¿Porque no queremos luchar? Cuidado con esto último porque de aquí a poco tiempo la socialdemocracia y las diferentes fracciones de la burguesía no calificarán tales objetivos de locura.

Por desgracia ocurrirá exactamente lo contrario. Defenderán afanosamente a los sistemas que nos ocupan. Y, ya no será cuestión de presupuestos, sino de otros asuntos mucho más gruesos. Por otro lado, ¿existe alguien que diga que un Estado Socialista Vasco (ubicado en ciertos límites) podría causar algún daño al proletariado mundial? Nosotros no vamos a encerrarnos en una Revolución Socialista Vasca en un territorio estanco y los demás "¡allá se las arreglen!". Siguiendo esta lógica, en el caso de que no se den tales saltos revolucionarios simultáneamente en todos los territorios del planeta, es responsabilidad de los revolucionarios del mundo aprovecharse de los diversos factores que se hayan generado y que han acontecido durante la coyuntura del momento en su territorio y llevar a cabo la revolución socialista. Al mismo tiempo pensamos que el sujeto revolucionario del Estado Socialista es el proletariado vasco, el cual priorizará sus relaciones con el proletariado mundial con independencia del lugar y que se haya consumado o no la revolución socialista.

Eso mismo es lo que las fuerzas revolucionarias tienen la responsabilidad de difundir por todo el mundo. Al hilo de ello, traemos a colación estas palabras de Argala: “lo que nos identifica con el proletariado de otros países es pertenecer una misma clase y no ser trabajadores de una misma nación”. A nosotros, aquí, nos ha tocado vivir y luchar en Euskal Herria. Es evidente que compartimos los objetivos de Txikito. Ese debe ser nuestro norte, así como para conseguir la amnistía para presos, deportados y huidos.

Amnistia osoa!!! Gora Txikito, gora Euskal Herria Batua, Euskalduna, Independentea eta

Sozialista!

Amnistiaren Alde eta Errepresioaren Aurkako Mugimendua - 2020-10-10

cle>

---

*https://eh.lahaine.org/manifestacion-nacional-txikito-31-dias*